

"Emakumea naiz eta zientzialaria izan nahi dut"

I. TESTUINGURUA

Argia Ikastolako LH3 eta LH4ko ikasleek "Etorkizuneko ingeniartzak: STEM bokazioak inspiratzen" proiektuan parte hartu dute 25-26 ikasturtean. Proiektua Dedalo Fundazioak kultura zientifikoa eta STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) bokazioak sustatzeko Nafarroako Gobernuaren COSMOS 2025 programaren barruan bultzatutako ekimena da.

Tailerra Irantzu Ortega Martiartu, Argia Ikastolako ikasle ohia eta ingeniari ikasketak burutako ikaslearekin egin genuen. Irantzuk gaur egun bere lanean aurrera eramaten dituen proiektuen berri azaldu zuen, ikerketa, jasangarritasuna... Ondoren eraikuntza esperimendu bat egin zen.

Tailerraren balorazioa oso positiboa izan zen, ikastolako ikasle ohia, emakumea, ingeniari eta ikerlaria. Ikasleentzat erreferente bikaina.

II. PROIEKTUA


Proiektuaren balorazioa oso positiboa izan zenez eta otsailaren 11an Emakume Zientzialaria Eguna zenez, Ikastolako beste talde batzuekin partekatzea erabaki zen. Horrela HH5, LH1 eta LH2ko ikasleei aurkeztu zitzaion.

Bigarren zati honen helburuak emakume zientzilarien lanen berri ematea eta azalpenarekin batera euskararen ahozotasuna eremua jorratzea izan ziren.

PROZEDURA

“10001 amigas ingenieras” liburutik hiru emakume zientzilari aukeratu ziren:

- “Manuela, exploradora del entorno”.
- “Lola , la aventura del laboratorio”.
- “María y sus amigas”.

 Eskutitzak.pdf

Ikasleak hiru taldeetan banatuta, talde bakoitzak dagokion zientzialarien biografia aztertuko du. Bertan beraien ikasketak eta egungo lana zertan den azaltzen dira. Produktu jasagarria sortzea zertan datzan, adibidez.

Ondoren ingenieritzarekin zerikusia duen praktika edo esperimentu bat proposatzen da.

Ikasle talde bakoitzak beste taldeari egin behar duen prestaketari ekingo dio: emakume zientzilaria lanari buruzko ahozko azalpena eta esperimentuaren praktika.

ELKARREKINTZA HASI AURRETIK

- Egin beharreko lana aurrera eramateko ikasleei landu beharreko irizpideak (azalpenaren atalak, antolatzaileak, hiztegi egokia) azaldu zaizkie. Hauek jarraituz, informazioa idatziz jaso dute.
- Azalpenerako beharrezko materiala prestatuko dute eta aurkezpenaren azalpena egin aurretik entseguak egin dituzte talde txikietan.
- Entseguen ondoren hobetu beharrekoak moldatu (egitura, denbora,)

ELKARREKINTZA MOMENTUAN

- Azalpen baten ezaugarriak eta lanaren atalak argi azaldu behar dira.
- Azalpenean lagungarri izan daitezkeen soportek erabili (krokisa, esku-beso mugimenduak,...)

Kontuan hartzekoak:

- Agurra.
- Lana aurkeztu, bakoitzak bere zatia.
- Azalpena entzuleari egokitu.
- Ozen hitz egin.

- Publikoari begira egon.
- Bukaeran galderak egonez gero, erantzuten saiatu.
Bukaeran eskerrak eman.

ELKARREKINTZA ONDOREN

- Besteen balorazio kritikoa. Ikaskideen eta irakaslearen artean egingo da.
Balorazioa, hobetu beharreko aipamen baten ondoren, ongi egindako beste bat aipatu behar da. Oreatua izan behar da.
Norberak bere lana baloratuko du. Honetan ere, ongi egindakoak eta hobetu daitezkeenak baloratuko dira.

ESKUHARTZEA (IDU)

- Ikasle guztiek azalpenerako behar dituzten “andamioak” erabiltzeko aukera izango dute.
- Taldekideen artean azalpena banatzeko orduan, ikasle bakoitzaren indarguneak eta ahuleziak kontuan hartuko dira, denek parte hartu eta talde sentimendua indarturik ateratzeko.

TALDEAREN / IKASLEAREN EBALUAZIOA

ZER?

- Lana argi azaltzea.
- Edukia ongi sekuentziatua egotea
- Gaiaren hiztegi zehatza erabiltzea
- Prestatutako materialak egoki erabiltzea
- Besteen zalantzak argitzeko gai izatea
- Gorpuzkera, entonazio eta hitz jario egokia mantentzea

NOLA?

- Oharrak hartuz.
- Grabaketa ikusiz.

III. ESPERIMENTUEN ARGAZKIAK

